MarxFem
International Conference
ONLINE- November 11-13, 2021

ZOOM DESKARGATZEKO TUTORIALA

1. PAUSOA. Ireki zure interneteko nabigatzailea eta sartu Zoom deskargatzeko webgune ofizialean: www.zoom.us/download.



» Webgunea beste hizkuntza batean agertzen bazaizu, jaitsi orrialde behealderaino. Menu zabalgarri bat aurkituko duzu, eta bertan zure gustuko hizkuntza aukeratu ahal izango duzu.

2. PAUSOA. Koloka zaitez **Cliente Zoom para reuniones** atalaren azpian eta egin klik **Descargar** botoian.

3. PAUSOA. Deskargatu ondoren, egin klik fitxategian eta sakatu **Ejecutar** botoian instalazioa hasteko.



» Aurrerapen-barra bat agertuko da, programa instalatzen ari dela adieraziz. Instalazioa amaitzen denean, Zoom automatikoki irekiko da.

Zoom Mac batean deskargatu nahi baduzu…

Aplikazioa deskargatzeko, jarraitu aurreko ataleko lehen bi urratsak.

3. PAUSOA. Egin klik **Zoom.pkg** fitxategian instalatzailea exekutatzeko.



4. PAUSOA. Appleren instalatzailearen leihoa irekiko da. Egin klik **Continuar** botoian.



5. PAUSOA. Instalatzaileak zure ekipoaren **Erabiltzailea** eta **pasahitza** berresteko eskatuko dizu.

6. PAUSOA. Elkarrizketa-koadro bat irekiko da, eta bertan **Instalar Software** botoian klik egin beharko duzu.



7. PAUSOA. Gero, egin klik **Cerrar** botoian instalazioa amaitzeko.

» Elkarrizketa-koadro bat agertuko da, eta honako hauen artean aukeratu beharko duzu: **deskargatutako fitxategia gorde** edo **birziklatzeko zakarrontzira bidali**.

8. PAUSOA. Instalazioa amaitzen denean, Zoom automatikoki irekiko da.